

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

2019-20 ESKAINTZA

### GOIZEKO ZAINTZA

---

Goizetan, eskola ordua baino lehen haurrak uzteko beharra duten familiei zuzendutako zerbitzua da. 7.30tatik aurrera, umeak pertsona heldu baten zaintzapean eskolako instalazioetan egoteko aukera luzatzen da. Irailetik ekainera, eskola egun guztietan egoten da martxan zaintza zerbitzua.

- Nori zuzendua: **HH2-LH6**
- Orduategia: **egunero, 7.30h - 9.15h**
- Hileko kuota: aldakorra erabileraren arabera (Irailiko bilera informatiboan zehaztuko dira).

### MEKANOGRAFIA IKASTAROA

---

Mekanografia ikastaroa 21 mailatan banatua dago. Ikasleak teklatua ezagutzen duen heinean mailaz pasatzen joaten da. Helburua teklatua begiratu gabe eta hizki bakoitza dagokion behatzaz zanpatuaz idazten ikastea da. Behin hori lortutakoan, abiadura eta akatsen murriztea lantzen dira.

- Nori zuzendua: **LH3- LH6**
- Orduategia: **asteartea, osteguna eta ostirala , 3 txandatan (16.45h-17.30h, 17.30h-18.15h, 18.15-19.00h)**
- Hileko kuota: **36 €**

### PSIKOMOTRIZITATEA

---

Psikomotrizitatea hitzak dioen moduan pentsamendua eta gorputza batzea helburu duen proposamena da; jolasaren bidez haurrak dituen beldur, gogo eta larritasunak konpentsatzen saiatzen da. Saio hauen bitartez, haurra bere mugimenduaren plazerrean identitatea eraikiz doa eta horrek pentsamenduan eragina du.

- Nori zuzendua: **HH3-LH1**
- Orduategia: **astelehen, astearte edo asteazkenetan 17.00h-18.30h**
- Hileko kuota: **30 €**

## PLAYTRAIN

---

"Jostatzeko Trena" edo "Play Train" ingelesez, aukeratutako eguneko gaiaren inguruan ekintza desberdinak egitea da: antzerkia eta ipuinak, artisautza, kanpoko ekintza eta jolasak, abesti eta dantzak... Modu interaktibo, komunikatibo, dibertigarri eta sormenezko batean haurrek ingelesaz goza dezaten.

- Nori zuzendua: **HH4-LH1**
- Orduategia: **astearte, asteazken edo ostegunetan 13.15h-14.15h, edo astelehenetan 17.00h-18.00h**
- Hileko kuota: **30€**

## ROCKBOTIC

---

Ordenagailuak erabiltzea jakiteaz gain, programazioa eta robotikaren bidez garapen lekognitiboko beste zenbait baliabide garatzen ditugu, pentsamendu logikoa, pentsamendu kritikoa edo kreatibitatea esaterako (Informazio gehiago: [www.rockbotic.com](http://www.rockbotic.com)).

### HAUR HEZKUNTZA: 4-5 urte

Pentsamendu abstraktua eta programazioaren hastapenak jolas ludikoen bitartez, Bee-bot robota erabiliz.

- Nori zuzendua: **HH4-HH5**
- Orduategia: **astelehena edo asteazkena 17.00h-18.00h**
- Hileko kuota: **28 €**

### LEHEN HEZKUNTZA: 6-12 urte

Kreatiboki pentsatu, elkarrekin lan egin eta sistematikoki hausnartzeko ekintza, Scratch programazio-lengoaia eta Lego Wedo, LEGOk diseinatutako plataforma robotikoa, erabiliz.

- Nori zuzendua: **LH1-LH6**
- Orduategia: **astelehena edo asteazkena, 17.00h-18.00h edo 18.00-19.00h**
- Hileko kuota: **28 €**

## JOLAS HEZI

---

Eskola Kirola-ren barnean, 6-8 urte bitarteko haurren garapen motor/kognitibo/afektibo eta sozialaren oinarriak eraikitzekeo programa da.

Lehiaketarik gabeko jolasa da oinarria, euskal kulturaren ezaugarritzea eta aniztasunari erantzunez (kulturartekoa, parekidetasuna, aniztasun funtzionala).

Adin honetako ikasleen garapen osorako ezinbestekoak diren jarduerak txertatuko dira: Jokoak, jolasak, gorputz-adierazpena... Nesken ahalduentze motorra eta aukera berdintasuna sustatzeko estrategia lehenengo lerroan jarriko delarik. Jolasik gabe ez dago heziketarik, horregatik eskaintzen dizugu JOLASHEZI.

Info gehiago ondorengo web orrian aurki dezakezute

<http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/jolashezi>

- Nori zuzendua: **LH1-2**
- Orduetgia: **zehazteko** (astean ordu bateko 2 saio)
- Kuota: **zehazteko**

## KAPOEIRA

---

Capoeira Brasiletik datorren dantza eta borroka nahasten duen artea da. Honen bitartez gorputz osoa lantzen da eta koordinazioa, indarra, oreka, malgutasuna eta erritmoa hobetzen dira psikomotrizitatearen bitartez. Bestalde, elkarlana, norberarekiko konfidantza eta inklusioa indartzen dira. Guzti hau musikarekin lagunduta. Gehiago jakin nahi baduzue begiratu SENZALA EUSKADI CAPOEIRAREN webgunea : [www.senzalaeuskadicapoeira.com](http://www.senzalaeuskadicapoeira.com)

- Nori zuzendua: **HH5etik LH2ra eta LH3tik DBH2ra.**
- Orduetgia:  
**HH5etik LH2ra: asteazkenetan 18:00etatik 18:45etara.**  
**LH3tik DBH2ra: asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara.**
- Hileko kuota: **25 €** (erropa aparte)